

IKASTETXEA	PEDRO DE URSUA BHI		
IZENBURUA	Publizitatearen egiak: Publizitateak gezur esaten digu	MAILA	2.DBH
IRAKASLEA	Yanira Echavarri López	IKASGAIA	24 PLASTIKA

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

2. ATAZA


TESTUA

Publizitateak gezurra esaten digu

Publizitateak gezurra esan eta gehiegikeriatan ibiltzen da. Hala ere, nahiz eta gezurretan ari dela jakin, esloganen etengabeko errepikapenak zertxobait sinistera bultzatzen gaitu, edo guztiz, zuria zena beltz ikusi arte.

Publizitateak jende zoriontsua erakusten digu, ederra, konplexurik gabekoa, bere arazoak konpontzen dituen saltzen duten produktua erabiltzeagatik. Denak oso erraza dirudi. Guk ere horrelakoak izan nahi dugu. Sinistu nahi dugu auto aerodinamiko eta ahaltso horrekin zoriontsu izango garela (eguneroko auto-ilarak jasan ordez).

Propaganda komertzialaren gezurren artean gezurrik handiena azaleko gauzek, gauza materialek, diruak eros ditzakeenak, zoriona dakartela da. Agian publizitateak gezurra esaten digula agerian uzten duen kasurik nabarmenena haurrentzako elikagaien iragarkiak dira. Azter dezagun kasu konkretu hau; haur batek edozein arratsaldetan “Los Lunis” ikustean, afaldu aurretik hau guztia jan dezake begiekin, telesailaren etenaldi batean iragarri zutelako, 6 aldiz Happy meal, 5 aldiz Nocilla, 4 aldiz Danonino, Pizza Hut, Nutella, Tosta Rica...



Haurrentzako elikagaien publizitatea 5 produktuz osatuta dago: gozokiak, fast food, azukredun zerealak, aperitibo gazituak, eta freskagarriak, hauek guztiak espezialistek identifikatu dituzte gaur egungo haurren elikadura desorekaren erantzule.

Iragarkien %41ean produktuei benetakoak ez diren ezaugarriak atxikitzen zaizkie, “Bollicaoa jaten baduzu, goi mailako kirolariei irabaziko diezu”, “Boomer txiklearekin ezinezkoak diren puxikak egin daitezke”, “Mac Donaldsen Happy Meal jatekotan, klaseko altuena izango zara”... modukoak. Gehienak pertsonaiak erabiltzen dituzte (kirolariak, fiziozko protagonistak..) euren produktua saltzeko.

Iragarkien %16k fikziozko irakasle edo gurasoak erabiltzen dituzte. Kasu batzuetan hauen funtzioa eraldatzera iristen dira; adibidez, ama on bat, bere semea maite duena eta semeak maite duena Nocilla jartzen dio askaltzeko.

Ondorengo grafikoan alderatzen dira elikaduran espezialisten gomendioa eta iragarkien arabera publizitateak proposatzen duen elikadura-piramidea. Gorri kolorearekin adierazita dauden elikagaiak, noizbehinka hartu beharrekoak, gehien iragartzen direnak dira, gainera berezkoak ez diren ezaugarrietaz baliatuz.



JATORRIA	
EGILEA	Antonio Manzano Córdoba
IZENBURUA	La publicidad te miente deliberadamente
ARGITALETXEA/Webgunea	http://www.isftic.mepsyd.es
URTEA	2010
ORRIALDEA (K)	4
ISBN	
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Etena
MOTA	Argudiozkoa
ERABILERA	Publikoa

JARDUERAK
1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU

1.1 Galdera

Produktu hauen artean, zein dira gutxitan agertzen direnak? Nocilla, Bollicao, Nutella, ogia, Danonino. Zure erantzuna arrazoitu.

1.1 Erantzuna

Ogia, 2 aldiz agertzen delako.

1.1 OHARRAK

1.2 Galdera

Hauetariko zein pertsonaia erabiltzen dira haurrentzako iragarkietan, beraien eginkizuna moldatzera iritsiz?

- a) dendetako langileak
- b) gurasoak eta irakasleak
- c) marrazki bizidunak

1.2 Erantzuna

B da zuzena. Kasu batzuetan hauen funtzioa eraldatzera iristen dira, produktua **goraipatu** nahian.

1.2 OHARRAK

5 produktuak: gozokiak, fast food, azukredun zerealak, aperitibo gazituak, eta freskagarriak.

2. ULERMEN OROKORRA

2.1 Galdera

Zein publizitateri buruz hitz egiten du testuak?

2.1 Erantzuna

Haurrentzako elikagaien publizitateari buruz.

Benetakoak ez diren ezaugarriak eman, gezurra esan, pertsonaia erakargarriak erabili eta umeen eredu diren pertsonen funtzioak aldatu.

2.1 OHARRAK

2.2 Galdera

Beste izenburu bat jarri testu honi.

2.2 Erantzuna

Publizitatearen tranpak, publizitatearen faltsukeriak...

2.2 OHARRAK

2.3 Galdera

Izenburua berriro irakurri. Izenburuko **hitzak** testuan errepikatzen dira. Zergatik dela uste duzu?

2.3 Erantzuna

Publizitatea eta gezurra hitzak testuan behin eta berriro errepikatzen dira, testuko tesia hori bera delako eta indartzeko balio dutelako.

2.3 OHARRAK

3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK

3.1 Galdera

“Bollicaoa jaten baduzu goi mailako kirolariei irabaziko diezu” esaldi hau egia dela uste duzu? Zure erantzuna arrazoitu, grafikoari erreparatuz.

3.1 Erantzuna

Ez, Bollicaoa elikadura piramidean noizbehinka jan beharreko elikagaia da eta, beraz, ez oso osasuntsua, goi mailako kirolaria izateko elikadura orekatu bat izan behar **baita**.

3.1 OHARRAK

3.2 Galdera

“Esloganen etengabeko errepikapenak zertxobait sinisterra bultzatzen gaitu, edo guztiz, zuria zena beltz ikusi arte.” Zer esan nahi du “zuria beltz ikusi arte” esaldiak?

3.2 Erantzuna

Hasiera batean egiazat gauenak bere esanahia alda dezakeela kontrakoa behin eta berriro errepikatzen badigute.

3.2 OHARRAK

4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA

4.1 Galdera

Zergatik uste duzu testuan azpimarratzen dela publizitatearen alde negatiboa?

4.1 Erantzuna

Telebistan ikusten dugun guztia ez sinesteko eta saltzeko erabiltzen diren estrategiak ezagutzeko.

4.1 OHARRAK

4.2 Galdera

Ongi iruditzen zaizu haurren telesaila baten erdian horrelako produktuak iragartzea? Zure erantzuna arrazoitu

4.2 Erantzuna

Ez, ez direlako osasuntsuak eta haurrak oso ahulak direlako eta dena sinesten dutelako, eta gero bere gurasoei eskatuko diete eta ez badute lortzen ez dituztela maite pentsatuko dute.

4.2 OHARRAK

4.3 Galdera

Zer egiten du publizitateak produktu bat saltzeko?

4.3 Erantzuna

Benetakoak ez diren ezaugarriak eman, gezurra esan, pertsonaia erakargarriak erabili eta umeen eredu diren pertsonen funtzioak aldatu.

4.4 Galdera

Non ikusten da argien haurrentzako iragartzen den elikadura ez dela osasuntsuena?

4.4 Erantzuna

Grafikoan eta testuaren esaldi batean: hauek guztiak **espezialistek identifikatu dituzte** gaur egungo haurren elikadura desorekaren erantzule.

4.4 OHARRAK

5. FORMAREN GAINEN HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA

5.1 Galdera

Zergatik aukeratu dute kolore gorria koipea duten jakiak adierazteko?

5.1 Erantzuna

Gorria debekuarekin lotzen delako.

5.1 OHARRAK

5.2 Galdera

Bila itzazu tesia baieztatzen duten bi argudio.

5.2 Erantzuna

“Publizitateak jende zoriontsua erakusten digu, ederra, konplexurik gabekoa”, “gezurrik handiena azaleko gauzek, gauza materialek, diruak eros ditzakeenak, zoriontasuna dakartela da”.

5.2 OHARRAK